

AGINDUA, 2021ko apirilaren 14koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez laguntzak arautzen eta iragartzen baitira ekintzaitzari eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2021ko ekitaldirako.

Turismo-enpresen sorkuntza eta lehiakortasuna hobekuntza laguntzak

<p>Helburua</p>	<p>Toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Turismo-negozio berriak sortzea (I. eranskina) - Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea (II. eranskina)
<p>Onuradunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Ostatu turistikoen enpresak. b) Sukaldaritzaren arloko enpresak. c) Bitartekaritzako turismo-enpresak. d) Turismo-garraioko enpresak. e) Turismo aktiboko enpresak. f) Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak. g) Turismo-gidariak. h) Autokarabanak hartzeko eremu berezien titularrak <p>Onuradunek laguntza eskatzen duten turismo-establezimenduan edo negozioan jardun beharko dute eskabidea aurkezten duten unean, eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egon beharko dute laguntza eskatzen duten jarduerari dagokion epigrafean, salbu eta ekintzaitzari-ildorako laguntza eskatzen badute (I. eranskina), eskabideak aurkezteko epea igaro ondoren martxan jartzea aurreikusten den turismo-negozio berri bat sortzeko. Kasu horretan, 2021eko abenduaren 31 baino lehen bete beharko dituzte bi baldintza horiek.</p>
<p>Diruz lagunduko diren ekintzak</p>	<p>1.-Agindu honetan jasoko laguntzak dirulaguntza ez-itzulgarri gisa hartuko dira, eta lerro hauetakoren batean sarturiko jarduketak finantzatzera bideratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Turismo-negozio berriak sortzeko ekintzaitzari, I. eranskinean zehaztutako ezaugarrien arabera. b) Honako xede hauek bilatzen dituzten turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea COVID-19aren pandemiak eragindako inguruabarretan, II. eranskinean zehaztutako ezaugarrien arabera: <ul style="list-style-type: none"> - Turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez. - Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea. - Eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarri bideratzea. <p>2. Lerro biek elkar baztertzen dute.</p> <p>3. Laguntzaren xede diren inbertsioak EAEn kokatu beharko dira.</p>

<p>Ez da diruz lagunduko</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lursailak, eraikinak eta lokalak erostea. - Langileen gastuak. - Enpresetako ibilgailuak erostea - Negozioaren lokalaren alokairua, I. eranskineko jarduketetan izan ezik. - Negozioa mantentzeko gastu orokorrak (argia, ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, ohiko aholkularitza-gastuak, kontsumigarriak, etab.). - Informatika-ekipamendua, salbu eta beharrezkoa bada laguntzaren xede den ekimena gauzatzeko, eta proiektua balioesteko azalpen-memorian argi eta gabi justifikatzen bada. - Berrikuste- eta mantentze-gastuak. - Eskatzaileak ekoiztutako, egindako edo garatutako aktiboak - Finantzaketako edota aholkularitza juridiko eta finantzarioko gastuak, zeharkako zergak edota pertsonalak notario- eta erregistro-errentaren gainekoak, administrazio-baimenen tasak, lizentziak edo antzekoak
<p>Diru- laguntzak emateko prozedura</p>	<p>Norgehiagoko prozeduraren bidez esleituko dira.</p>
<p>Laguntzen zenbatekoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Turismo-negozio berriak sortzera bideratutako proiektuetarako (I. eranskinean jasoak) dirulaguntza maximoa onartutako zenbateko garbiaren % 40 izango da, eskaera bakoitzeko, 18.000 eurora arte. b) Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuetarako (II. eranskinean jasoak) dirulaguntza maximoa onartutako zenbateko garbiaren % 30 izango da, eskaera bakoitzeko, 15.000 eurora arte.
<p>Aurkezteko epea</p>	<p>Aurkezteko azken eguna 2021eko ekaineren 11a</p>
<p>Aurkeztu beharreko dokumentazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Sinadura elektronikoa: tramitazio telematikoa egiteko b) Oinarrizko dokumentazioa: <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza-eskabidearen xede diren jarduketei buruzko azalpen-memoria, IV. eranskinean bildutako edukiari erantzunez. - Pertsona juridikoak: enpresaren eratze-eskriturak. Ekintzaitzarako laguntzen eskabideen kasuan (I. eranskina), laguntza justifikatzeko fasean aurkeztu ahal izango dira, betiere enpresa epea amaitu ondoren eratu bada. - Hala badagokio, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak: eratze-kontratua. - Diruz lagun daitezkeen gastuen aurrekontuak edo proformako fakturak, dirulaguntzaren xede diren elementuak eta/edo lanak argi eta garbi identifikatuta. - Ekonomia-jardueren gaineko zergan izandako alten eta bajen ziurtagiri historikoa. c) Turismo negozio berrien kasuan (I. eranskina): <ul style="list-style-type: none"> - Negozio-plana: ekintzaitzarako laguntzen eskabideak (I. eranskina). - Lokalaren errentamendu-kontratua (I. eranskina), halakorik balitz, eta beste

	<p>zerbitzu batzuen (7.5 artikulua).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hala badagokio, teknikari eskudunek sinatutako txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dela ziurtatzen duena. Dokumentu hori ez da beharrezkoa izango obrarik ez dakarren ekipamendua erosteko eta/edo instalatzeko kasuetan (I. eranskina). <p>d) Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuen kasuan (II. Eranskina):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hala badagokio, familia-ondorengotza egiaztatzen duen dokumentazioa (II. eranskineko 2.2 atala). - Hala badagokio, enpresa- eskualdaketa egiaztatzen duen dokumentazioa (II. eranskineko 2.2 atal). <p>e) Irizpideak balioesteko dokumentazio osagarria:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekonomia-jardueren gaineko zergan deialdiaren urtean alta eman duten enpresak: Altan dauden langileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, langileren bati alta eman zitzaionetik eskabidea egin aurreko hilabetera arte igarotako aldiari dagokiona. 6. irizpidea. - Norberaren kontura lan egiten duten pertsonen alta egiaztatzeko agiria, halakorik balitz: Norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian alta emateko ebazpenaren kopia, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandakoa eta eskabidea egiten den egunean eguneratua. 5. eta 6. irizpideak. - Hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plana (irizpide honek ez du balioko Berdintasun Legeak behartutako enpresen kasuan), edota lana eta familia kontziliatzeko plana. 3. Irizpidea. - Hala badagokio, «kotizazio-kontuaren kode batean alta emanda dauden langileen txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, eskabidea egin den egunean eguneratua. Irizpideak: 3 (% 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatu izanaren egiaz tagiriak aurkeztea). 5. irizpidea. -Hala badagokio, negozio-plana enpresak sortzeko eta garatzeko lankidetzan jarduten duten enpresek garatu edo tutorizatu dutela egiaztatzea (enpresa-haztegiak, enpleguak abiarazteko eta sorraraztekoak, enpresa-zentroak eta abar). 5. irizpidea. -Hala badagokio, marketin-plana. 5. irizpidea.
Bateragarritasuna	Bateragarria da gainontzeko diru-laguntzekin

Baldintzak	<p>a) Agindu honetako 4. artikulua zerrendatutako turismo-enpresek eskatu ahal izango dituzte lerro honetako laguntzak, baldin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman badute 2019ko urtarrilaren 1aren ondoren eta 2021ko abenduaren 31ren aurretik.</p> <p>b) Dirulaguntza jaso ahal izango dute honako hauek:</p> <p>b.1) Sortze-gastuak: erregistroa, notarioak, aholkularitza, proiektu teknikoak.</p>
-------------------	---

	<p>b.2) Abiarazteko gastuak: lokalaren alokairua, bideragarritasun-azterketak, markak erregistratzea, irudi korporatiboaren diseinua.</p> <p>b.3) Enpresa sortzeko eta handitzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak: instalazioen egokitasuna; altzariak eta ekipamendua erostea, informatikoa barne; eta II. eranskinaren 2.1 zenbakian adierazitako soluzio teknologikoak txertatzea.</p> <p>b.4) Garraio-elementuak diruz laguntzeko modukoak izango dira, baldin eta diruz lagundutako jarduera bertan garatzen bada edota hura garatzeko ezinbestekoa baldin bada,</p>
	<p>Gutxieneko inbertsioa: 10.000€ Diru-laguntza: 40% Gehienezko diru-laguntza: 18.000€</p>

TURISMO-NEGOZIO BERRIAK SORTZEKO LAGUNTZEN LERROA (I. eranskina)

COVID-19AK SORTURIKO PANDEMIAREN INGURUABARREAN TURISMO-ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO LERROA (II. Eranskina)

<p>Diruz lagundutako ekintzak</p>	<p>a) Enpresen eta turismo-zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresen digitalizazioan aurrera egiteko soluzio teknologikoak ezartzea. 2. Berrikuntza sustatzea negozio-prozesuetan eta I+G+Bko jarduerak garatzea. 3. Establezimenduaren kudeaketa adimenduneko sistemak ezartzea. 4. Haririk gabeko konektibitatea hobetzea turismo-ostatueta. <p>b) Enpresen eta turismo-zerbitzuen eskaintzaren hobekuntza</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskadiko turismo-estrategiarekin lerrokatutako zerbitzuen eta/edo turismo produktuen eskaintza handitu 2. Obrak eta ekipamendu-erosketak sukaldaritza-establezimendu edo turismo-ostatuetaarako 3. 2019. urtea baino lehenagotik negozioan edota hobetu beharreko establezimenduan turismo-jardueran etengabe jardun dutela egiaztatzen duten pertsonak edo erakundeak sartu ahalko dira apartatu honetan. <p>c) Eskaintza egokitu turismoa jasagarria, arduratsua eta irisgarria izan dadin</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Turismo-jarduerak ingurunean duen inpaktua murriztera bideratutako inbertsioak. 2. Turismo-enpresek online eskaintzen dituzten instalazioak, zerbitzuak, produktuak eta komunikazio-sistemak eskuratzeko bereziki garaturiko teknologiak biltzea. 3. Osasungintzako agintariak ezarritako neurrien edo eginiko gomendioen ondotik jarduera turistikoa egokitzeko beharrezko aktibo finkotan egindako inbertsioak.
	<p>Gutxieneko inbertsioa: a) a) atalerako: 3.000€ b) b) atalerako: 3.000€ c) c) atalerako: 3.000€ Diru-laguntza: 30%. Gehienezko diru-laguntza: 15.000€</p>

